

EKOSISTEMEN ZERBITZUEN EBALUAZIOA URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAKO SISTEMA SOZIAL-EKOLOGIKOAN: KUDEAKETA ESTRATEGIETARAKO EZAGUERAK

Tesiaren egilea: Nekane Castillo Eguskitza

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Landare Biologia eta Ekologia

Tesi-zuzendaria: Miren Onaindia Olalde eta Alejandro J. Rescia Perazzo

Tesiaren laburpena:

Tesi hau Urdaibaiko Biosfera Erreserbako sistema sozial-ekologikoaren ekosistemen zerbitzuen ebaluazio eta balorazioan zentratzen da, betiere paisaiaren antolamendu eta kudeaketa iraunkorrerako erabaki-hartze prozesuan lagungarri izateko xedearekin. Horretarako, ingurumen eta informazio sozioekonomiko eta kulturala bildu genuen, eta interesdunen eginkizun aktiboa suspertu ere inkesten bitartez. Alde batetik, Biosfera Erreserbaren izendapenak iraunkortasunerako helburuak bete eta bertoko biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzen lagundu duen ala ez aztertu genuen. Bestetik, ekosistemen zerbitzuak iraunkortasunerako erabakiak hartzeko paradigma berri gisa kontsideratuak izanik, haien balorazioan sakondu genuen. Lehenik eta behin, azken 44 urteotan Urdaibaiko Biosfera Erreserban gertatutako lurzoru-erabileren aldaketa nagusiak ikertu genituen eta haien inpaktu ekonomikoa estimatu genuen literaturan oinarritutako balioak erabiliz. Gero, ekosistemen zerbitzuen dimentsio biofisikoa eta monetarioa lotzen saiatu ginen. Alabaina, gure ikerketa-arean ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalak oso ezberdinak izango zirelakoan, eta ezagutza-hutsune hori betetzeko, hautaketa-esperimentu bat burutu genuen tokiko biztanleriaren lehentasun eta kudeaketa-alternatiba desberdinekin erlasionaturiko ekosistemen zerbitzuekiko euren ordaintzeko borondatea aztertzearen. Azkenik, ekosistemen zerbitzuen multidimentsionalitatea ziurtzat hartuta, ekosistemen zerbitzuen osagai ezberdinen artean (eskaintza, eskaria eta interesa) desadostasunak edo desberdintasunak aztertzeko metodologia bat proposatu genuen sozioekonomikoki eta ingurumenaren aldetik antzekoak diren Urdaibaiko Biosfera Erreserbako unitate desberdinetan. Orokorrean esan genezake, lortutako informazioa tokiko mailan erabaki adostuak hartzeko eta gatazka potentzialak konpontzeko eta iraunkortasunerako kudeaketa errazteko baliagarria izan daitekeela.